



1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2017):	9.873
Zabalera:	80,57 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Tutera (ikus mapa)
Udalerriak:	Cintruénigo, Fitero

2. Komunitatea eta osasuna

Cintruénigoko eskualde oinarrizkoko biztanleriaren piramideak erraboil itxura du; 30etik 60 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. Cintruénigoko eskualde oinarrizkoak handienetakoak ditu jaiotza tasa (%10,4), 14-19 urteko ama duten jaioberrien tasa (%11,1), bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezko eta gizonezkoen etheen portzentajea (%48,3 eta %22,4, hurrenez hurren) eta muturreko pobrezia arriskuaren tasa (%16,6), azken datu hori izanik Nafarroako handiena.

Cintruénigokoa dago emaitza hoberenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean, haurren obesitatearen prebalentziari dagokionez (%3,4), gizonezkoen antsiolitiko eta antidepresiboen kontsumoari dagokionez (%8,4), eta gizonezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (81,2 urte). Kontrara, emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarrizkoen %25en artean artean dago, 6 hilabetetan amandik edoskitzen duten haurrei

dagokienez (%53,8) eta urteko kontrol erregistratua duten diabetikoen portzentajeari dagokionez (%47,4), azken datu hori izanik Nafarroako handiena. Diabetesa diagnostikatua duten pertsonen prebalentziak bat egiten du Nafarroako batez bestekoarekin (%7,1).

Nafarroa2000 zonifikazioan Cintruénigoko eskualde oinarrizkoa Tutera eskualdean dagoenez, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Tutera dagozkion adierazleak, bizimoduei, enpleguari eta ikasketa mailari buruzko inkestetatik atereak. Horien arabera, eskualdeko gazteen %33,5ek diote alkohol kontsumo intentsiboak egiten dituztela (binge drinking) eta %26,2k kontsumitzen dute tabakoa egunero. Tutera eskualdeak emaitzarik okerrenak agertzen ditu lehen hezkuntzako ikasketetan maila gorenak dituzten gazteen portzentajeari dagokionez (%15,7) eta langabezia tasari dagokionez (%14,5).

3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hay da, Osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateek eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesis).

[-> Ikus eskualdeko aktiboaren mapa](#)

4. Adierzleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierzle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrizkoen multzoaren aldera. ADierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanes gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), behatokiaren webgunean.

Grupo	Indicador	Periodo	Nº casos		Valor		Media		Mejor
			Zona	Zona	Zona	Navarra	Peor		
Faktore soziodemografikoak	1. Jaiotza tasa	2015	102	10,4	9,4	3,7		27,0	
	2. 14-19 urteko ama duten jaioberriak	2011-2015	16	11,1	5,4	16,7		0,0	
	3. Gehienez ere lehen mailako ikasketak dituzten gazteak #	2011	775	15,7	9,2	15,7		6,7	
	4. Langabezia tasa #	2016	-	14,5	12,5	14,5		7,9	
	5. Muturreko pobrezia arriskuaren tasa	2015	-	16,6	8,8	16,6		4,7	
	6. Zahartzaroko mendekotasun indizea	2016	1.864	30,1	29,5	63,9		2,7	
	7. Bakarrik bizi diren > 80 urteko emakumezkoen etxeak	2016	-	48,3	39,0	49,1		15,8	
	8. Bakarrik bizi diren > 80 urteko gizonezkoen etxeak	2016	-	22,4	19,1	35,1		10,3	
Bizimoduak	9. Partez edo guztiz amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko	2015	65	53,8	61,2	44,4		80,0	
	10. Sedentarisinoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	45	22,8	20,2	27,5		16,0	
	11. Alkoholarekin kontsumo intentsiboa gazteetan (14-29 urte) #	2013	70	33,5	37,8	45,1		28,2	
	12. Tabakoaren kontsumoa gazteetan (14-29 urte) #	2013	56	26,2	22,6	28,4		19,6	
	13. Tabakoaren eguneroko kontsumoa #	2012	56	21,2	20,5	25,0		19,2	
	14. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa emakumezkoetan	2016	860	17,6	17,7	21,9		11,7	
	15. Antsiolitikoaren eta antidepressiboaren kontsumoa gizonezkoetan	2016	378	8,4 *	8,6	12,5		7,3	
Gaixotze-tasa	16. Haurren obesitatearen prebalentzia (0-5 urte)	2015	21	3,4	4,3	8,7		2,0	
	17. Diabetesa diagnostikaturiko pertsonen prebalentzia	2017	566	7,1	7,1	9,0		4,6	
Osasun Sistema	18. HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak	2016	275	47,4 *	67,8	47,4		94,2	
	19. TA-ren neurketa duten hipertentsoak	2016	999	65,3	65,4	49,9		90,7	
Heriotza-tasa	20. Emakumezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	85,7	86,2	83,6		87,6	
	21. Gizonezkoen bizi-itxaropena jaiotzean	2008-2015	-	81,2	80,1	78,0		84,1	

Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errolda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Tuterako eskualdeko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 3., 4. eta 13. adierazleetan, 7; 10-12. adierazleetan, 6.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleetarako egindako kontrastea). **1.** Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduako ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruhilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobrezia atalasetik behara egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobrezia atalasea, 2015ean: 5150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 – 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 eguneko kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean, talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepressiboak (T. gordina: emakumezkoak 18,1 eta gizonezkoak 7,6); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroiaren arabera definiturik (z-score $\geq +2$); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 7,5); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuen neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaien biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotzatasaren arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.